

# ESKELA

Eskela bat idazterakoan badauzkagu kontutan hartu beharreko zenbait jarraibide. Ohiko eskelek formatu jakin bat jarraitzen dute eta badaude ia beti errepikatzen diren elementu batzuk.

Goiburuan hildakoaren izena eta deskribapen labur bat jarriko ditugu; noren alarguna, nongo langilea, noren ama...). Horrez gain, goiburuan hildako pertsonaren argazkia edo beste sinboloren bat (gurutzea, lauburua,...) ere agertzen dira sarritan.

Zuzeneko familiak jarritako eskelen kasuan, normalean beste eduki bat ere agertzen da, hau da, familako kideen izenak, hildakoaren adina, azken agurreko zehaztapenak,...

Askotan ohikoa izaten da eskelan azken agurrerako testuren bat jartzea, dagoeneko eginda dauden esaldiak, kantu eta poesien letrak, bertsoak... Hona hemen zenbait adibide:

- Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.
- Une latz hauetan jaso ezazue gure besarkadarik beroena
- Beti izango zaitugu gogoan
- Ez zaitugu ahaztuko

Bukatzeko eskelaren data eta tokia ere zehaztuko dira, eta behin hori eginda, eskela nork jarri duen adieraztea baino ez zaigu faltako (lagunak, senideak, lankideak...)

AR  
GAZ  
KIA

**Josu Leoz Diaz**  
(lankidea)

Lezaman hil zen 2012ko uztailaren 20an, 88 urte zituela.  
Azken agurra uztailaren 23an, 11:00etan, Loiuko tanatorioan.

*Beti gogoratuko zaitugu*

Lezaman, 2012ko uztailaren 21ean.  
OPLI S.A.ko lankideak